# ELA HARREMANETAN DAGO GURASOEN ELKARTEEKIN, ESKOLA-JANTOKIETAN GUTXIENEKO ESKUBIDEAK BERMATZEKO

**Helburua zera da: ELAk, azpikontrata publikoetarako, Nafarroako Parlamentuan aurkezturiko LHEaren berme berak esparru horretara ere hedatzea.**

Azpikontraten esparrua izaten da lan-merkatuko esparrurik ahantziena. Hori horrela, prekarietatea eta murrizketa-politika inon baino gehiago nagusitzen ari dira esparru horretan, eta horren ondorioz lan-baldintzak eta enplegua dira gehien higatzen diren atalak.

ELAn beharrezkotzat eta premiazkotzat jo genuen arazo horiek lehenbailehen bideratzea, eta 2013ko azaroan Legegintzaren Herri Ekimen bat aurkeztu genuen. Gaur, Nafarroako Parlamentuak, azpikontrata publikoen egoeraren azken erantzukizuna duenak, lege-proiektu hori eztabaidatuko du. ELAk horren bidez eskatu du baldintza-orri guztietan gutxieneko berme batzuk jaso behar izatea:

- **Subrogazioa:** enpresaz aldatzean enplegurik ez galtzeko.
- **Sektore-hitzarmena gutxienez**: lan-baldintzak hondatzen ez uzteko.
- **Zigorrak:** eta kontratua deuseztatzeko aukera ere, lehen errandakoa betetzen ez duten enpresei.
- **Enkante-prezio** nahikoa: zerbitzuetan etengabe egiten diren murrizketak geldiarazteko.



Esparru pribatuko azpikontratetan arazo berberak dituzte, baina baldintza-orririk ez dagoenez, LHE ez da baliagarria izanen arazoak konpontzeko.

Eskola-jantokiak, erraterako, azpikontrata pribatuen esparruan daude, eta enpresek egunero burutzen dituzte horrelako gehiegikeriak. Horregatik, ELAn pentsatu genuen bazela garaia gutxieneko eskubide horiek bermatzeko modua bilatzeko, hezkuntza-arloan eginkizun garrantzitsu bezain ahantzi hori betetzen duzuenontzat. Nola? Erraza:

Gurasoen elkarteek kontratatzen dituzte jantoki-zerbitzuaz arduratuko diren enpresak, eta kontratu horretan bertan sartu daitezke zenbait klausulatan lehen aipaturiko eskakizunak: subrogazioa, gutxieneko hitzarmena, zigorrak enpresa urratzaileentzat, eta prezio nahikoa.

> *“Guraso-elkarteen eta eskola-jantokietako enpresen arteko kontratuetan gutxieneko bermeei buruzko klausula batzuk sartu behar dira, jantoki-zerbitzuko enpleguari eta lan-baldintzei eusteko.”*

Gure ustez guraso-elkarteek ere interes berberak dituzte: lehendabizi, seme-alabekin egunero ibiltzen diren langileak berberak izatea, enpresaz aldatu arren; eta bigarren, langileek baldintza duinetan lan egitea zerbitzua kalitatezkoa izan dadin.

Horregatik gutunak bidali dizkiegu guraso-elkarteei, bilera eskatzeko, eta orduan horretaz hitz egin ahal izateko.

ELA saiatuko da eskola-jantokietako langileak ahanzturaren osinetik ateratzen; baina garrantzizkoa da zuek ere, kidego moduan, ikusgai agertzea.

Jakinaren gainean jarriko zaituztegu.





# ELA ESTÁ CONTACTANDO CON LAS APYMAS PARA GARANTIZAR UNOS DERECHOS MÍNIMOS EN LOS COMEDORES ESCOLARES

**El objetivo es trasladar a este ámbito las mismas garantías recogidas en la ILP presentada por ELA en el Parlamento de Navarra para las subcontratas públicas**

Los ámbitos subcontratados son, por lo general, los grandes olvidados del mercado laboral. Así en este ámbito se están extendiendo la precariedad y la política de recortes, atacando, tanto a condiciones de trabajo, como al propio empleo.

Desde ELA, vimos necesario y urgente tomar la delantera a estos problemas y en noviembre de 2013 presentamos una Iniciativa Legislativa Popular para ponerles freno. Hoy el Parlamento de Navarra, que en definitiva es responsable de lo que pasa en las subcontratas públicas, va a debatir ese proyecto de ley, a través del cual desde ELA solicitamos que todos los pliegos de condiciones que se publiquen recojan unas garantías mínimas:

- **Subrogación:** para impedir la destrucción de empleo ante el cambio de empresas.
- **Convenio sectorial como mínimo:** para impedir el empeoramiento de las condiciones de trabajo.
- **Sanciones** a las empresas que incumplan lo anterior: incluyendo la posibilidad de terminar con el contrato.
- **Precio de licitación** suficiente: para poner freno a los continuos recortes en los servicios.



En las subcontratas del ámbito privado, existen exactamente los mismos problemas y sin embargo, como en este caso no hay pliegos, la ILP no sirve para atajarlos.

Los comedores escolares, son un claro ejemplo de un sector que pertenece al ámbito de las subcontratas privadas y donde a diario, vemos que ocurren este tipo de abusos por parte de las empresas. Por eso, desde ELA decidimos que había que encontrar la manera de garantizar esos derechos mínimos para quienes ejercéis una importante labor dentro la cadena educativa, labor demasiadas veces no reconocida. ¿Cómo? Pues muy sencillo:

Las apymas son quienes contratan a las empresas que gestionan el servicio de comedor y en ese contrato se pueden incluir las cláusulas que recojan esas mismas exigencias: subrogación, convenio mínimo, sanciones para las empresas incumplidoras y precio suficiente.

*"Hay que incluir en los contratos entre Apymas y Empresas de Comedores escolares unas garantías mínimas para mantener el empleo y las condiciones de trabajo en el servicio de comedor."*

Entendemos que el colectivo de padres y madres es el principal interesado de que las trabajadoras que a diario tenéis contacto con sus hijos e hijas, en primer lugar, seáis las mismas personas, independientemente de que se decida cambiar de empresa y , en segundo lugar, que estéis trabajando en unas condiciones dignas que permitan dar un servicio de calidad.

Por ello, hemos empezado a ponernos en contacto vía carta con las apymas, para pedirles una reunión y poder hablar de todo esto.

ELA va a intentar sacar del olvido a quienes trabajáis en los comedores escolares, pero para eso, es importante que vosotras, como colectivo, también os hagáis visibles.

Os seguiremos informando.



